Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

BIZTANLERIAREN MAHAIA

Bizkaiko garapen iraunkorraren adierazle objektiboak (2013)

HELBURUAK

Egungo Bizkaiko iraunkortasun adierazleen bilakaera aztertzea

Bizkaiko lurralde historikoko biztanleen aberastasun-maila igo al da?

Biztanleak gai al dira bere bizi-kalitateari eragiten dioten politikak zehazterako orduan modu efektiboan parte hartzeko?

Aberastasun hori modu eraginkorragoan, hau da, baliabide gutxiago erabilita eta ingurumenari kalterik txikiena eraginda lortu al da?

Lortutako garapen-maila sozialki inklusiboa al da?

METODOLOGIA

Garapen iraunkorrean izandako aurrerakuntza objektiboa aztertzea :

- Bigarren mailako iturrien analisia
  (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia).
- Iraunkortasun eta bizi-kalitateari buruzko indize sintetikoa osatu.

ABERASTASUNAREN BILAKAERA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

Bizkaiko BPG prezio finkoetan.
Unean uneko aldaeren datuak zuzenduta. Oinarria: 2010



Iturria: Eustat.

Epe luzeko ikuspegiaren arabera, garapen iraunkorrak aberastasuna sortzeari dagokionez, Bizkaian azken 5 urteetan hazkunde ekonomikoa geldirik dagoela esan daiteke.

LANAREN PRODUKTIBITATEAREN BILAKAERA

Biztanleria okupatua Bizkaian. Kopuruak milatan



Iturria: Eustat.

Datuek agerian jartzen dutenez, azken hamarkadan eta, batik bat, 2004tik aurrera, Bizkaian etengabe hobetzen ibili zen laneko produktibitate-maila, izan ere, BPGa okupazioa baino azkarrago hazi zen eta lehiakortasunaren zein iraunkortasun ekonomikoaren ikuspegien arabera, bilakaera positiboa antzematen da. Krisia hasi zenean ere, produktibitatea hobetu zen, okupazioa BPGa baino azkarrago gutxitu zelako. Jakina denez, baliabideen erabilera optimoagoa egitea dakarren alderdi horrek gizarte-iraunkortasunaren ikuspegitik eragin negatiboa dauka, jende gutxiagok lana topatuko duelako.

EKONOMIAREN ENERGIA-INTENTSITATEA

Energia elektrikoaren kontsumo osoa Bizkaian biztanle eta urte bakoitzeko. (Kwh/Bizt.)



Iturria: BFA. «Iraunkortasun adierazle sistema»

Adierazlearen bilakaera ziklo ekonomikoaren araberakoa da: 2001etik 2008ra hazkunde handia izan zuen, 2009an jaitsiera handia izan zuen, 2010ean apur batean suspertu eta 2011tik aurrera berriro txikitzen hasi zen. Adierazlearen bilakaera BPGrekin alderatuta, neurri bi hauek ez daude egokituta; honenbestez, BPGren unitate bakoitzeko energia elektrikoaren kontsumoa murrizteko joera dagoela adierazi nahi du eta hori, iraunkortasunari dagokionez, hobekuntzaren adierazlea da.

HIRI-HONDAKINEN EKOIZPENA

Etxeko hondakinak eta BPG Bizkaian. BPGren indizea prezio finkoetan (oinarria: 2010) eta etxeko hondakinak biztanleko indizea, balioak 2001ean berdinduta prestatu da



Iturria: Guk geuk eginda, Eustaten eta Bizkaiko Foru Aldundiaren datuekin.
(*) 2012ko etxeko hondakinen datuak, 2011 urteko hondakinei buruzko legeak metodologiaren aldaketa ezarri ondoren eskuratuak.

Bildutako hondakinen bolumen orokorra hobetzeaz gain, hondakin horiek kudeatzeko prozesuan hobekuntza nabarmena ematen da, eta horrek ere agerian uzten du Bizkaian garapen-prozesu iraunkorra gertatzen ari dela. Halatan bada, hamarkadan zehar areagotu egin da era selektiboan tratatzen diren etxeko hondakinen ehunekoa: hamarkadaren hasieran %18 bazen, amaieran %25era iritsi zen; ia zenbateko bikoitza, beraz. Etxeko hondakinei buruz 2012rako bildutako datuen arabera, bilketa selektiboan hazkunde nabarmena dagoela ematen du, ia %35era artekoa; hala ere, aipatu den bezala, hazkunde handi horren zati bat, behinik behin, informazioa biltzeko irizpide berriei dagokiela nabarmendu behar da. Ezin izango lirateke zuzenean konparatu, beraz, 2001-2011 aldian erregistratutako datuak eta 2012an bildutakoak.

AIREAREN KALITATEAREN ETA CO_2 IGORPENEN BILAKAERA



Fuente: DFB, «Sistema de indicadores de sostenibilidad».

Lehenengo adierazleak hoberanzko joera erakutsi du 2003tik hona, izan ere, urte hartan emaitzarik txarrenak lortu ziren. Horrela, 2003an airearen kalitate ona izan zuten egunak %90 baino gutxiago ziren bitartean, 2010ean %99tik gorakoak izan dira.

HERRI-ERAKUNDEEK ETA ENPRESEK INGURUMENAREN KUDEAKETAREKIN DUTEN KONPROMISOA

Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezarri duten erakundeak eta enpresak Bizkaian



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia: «Iraunkortasunaren adierazle sistema».

Aztertu ditugun iraunkortasunari buruzko adierazle-sistema guztietan, garapen iraunkorrarekin eragile ekonomiko nagusiek duten konpromisoa neurtzeko adierazletzat hartu da ingurumen-kudeaketarako sistemak ezarri dituzten instituzioen eta enpresen kopurua. Bizkaian, alderdi horrek hobera egin duela erakusten dute datuek, azken hamarkadan halako sistemen hazkundea nabarmena izan baita enpresetan eta erakundeetan: sei bider gehiago, zehazki.

OKUPAZIO-TASA

Bizkaiko zenbait kolektiboren okupazio-tasa



Iturria: Eustat.

Garapenaren ikuspuntu sozialetik, enplegua sortzeak izan behar du inpaktu garrantzitsuena, horixe delako herritarrek beren ogibidea eta garatzeko baliabideak eskuratzeko oinarrizko bidea. 2001-2012 aldian argi eta garbi bereiztuta dauden bi testuinguru aurkitu dira. Hasieran, 2001ean eta 2009an okupazio-tasa etengabe hazi zen eta ondoren atzerakada garrantzitsua izan zuen. Izan ere, enplegua duten herritarren ehunekoa maila gorenean (%51,3koa) 2009an egon zen eta, 2012an, berriz, %46,6raino heldu zen, hau da, herritarren %5ak enplegua galdu du. Atzeranzko joera orokorra izan zen, baina batik bat gazteenen artean eman zen, eta 44 urtekoen artean okupazioari eutsi zitzaion.

BAZTERKETAREN ADIERAZLEAK



Iturria: Eustat.

Bizkaian, adierazleak U itxurako profil nabaria erakusten du. Halatan, 2001ean izandako %6ko tasaren ondoren, beherantz egin eta 2007an zuen punturik baxuena; hortik aurrera, baina, berriro hazi zen, 2011ko ekitaldian berriro ere %6ko tasa lortu arte. 2011n berriro igo zen herritarren %6raino eta 2012ko ekitaldian maila hori nabarmen gainditu zuen. Hala, 2008an hasitako krisiak, ekonomia ondo egon den garaian gizarteratze mailan lortutakoaren alde handi bat zapuztu duela eta azken emaitza XXI. mendearen hasierako urteetan geneukana baino okerragoa dela esan dezakegu.

BIZI-KALITATEAREN BESTE ADIERAZLE OBJEKTIBO BATZUK

Jaiotzako bizi-itxaropena Bizkaian. Urteak



Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea.

- Espainiako Estatistika Erakundearen datuen arabera, Bizkaiko gizonezkoen jaiotzako bizi-itxaropena 76,2 urtetatik 78,9 urtetara igo zen 2001etik 2011ra. Emakumezkoen kasuan, 83,8tik 85,3ra igo zen epealdi berean.

- Datu horiek erakusten digute Bizkaiko herritarrak luzaroago bizitzeaz gain, osasun-egoera hobean ere bizi direla: horixe adierazten dute, behintzat, menpekotasunari buruzko datuek.

Bizkaiko garapen iraunkorraren adierazle objektiboak (2013)

ONDORIOAK

Bizkaiko garapen iraunkorrari buruzko laburpena

Adierazlea	Joera orokorra
Dimentsio ekonomikoa	
– BPG per capitaren bilakaera	Negatiboa
Baliabideen erabilera eta ingurumena	
– Lanaren produktibitatea	Positiboa
– BPGaren eta ekonomiaren energia-intentsitatearen arteko erlazioa	Positiboa
– BPGaren eta hondakin-ekoizpenaren arteko erlazioa	Positiboa
– Airearen kalitatea	Egonkorra
– BPGaren eta CO_2 igorpenen arteko erlazioa	Positiboa
– Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS) duten erakunde-kopuruaren bilakaera	Positiboa
– Zarata	Negatiboa
– Ibaietako uraren kalitatea	Positiboa
– Etxebizitzetarako jarritako lurzorua	Egonkorra
Hazkundearen inklusibitatea	
– Okupazio-tasa	Negatiboa
– Langabezia-tasa	Negatiboa
– Kide guztiak langabe dauden etxebizitzak	Negatiboa
– Egoera ekonomiko txarrean dauden herritarrak	Negatiboa
– Bizi-itxaropena	Positiboa
– Menpekotasuna	Positiboa
– Parte-hartze politikoa	Negatiboa
– Gizarte parte-hartzea	Positiboa